

Ama Birjina barrez



**JOSE IGNAZIO
ANSORENA**
TXISTULARIA

Gaztetako txistea. Apostoluak txalupan, Jesus ikusi dute eurengana hurbiltzen oinez ur azalaren gainean. Pedro, Maisua imitatzen, uretara abiatu, baina hondoratu egiten da. Orduan, Jesusek haserre: "Txotxolo, arroken gainetik ibili, miraria izorratuko didak eta".

Antzeko asko, batzuetan lodi samarrrak ere, entzun izan ditut pertsona erlijiosoen artean, beti barre sanoez onartuak. Bruce Marshall idazlearen esaldia: "Inoren fedea ez da benetakoa haren inguruko txistek egiten hasten den arte".

Naizen kristau katoliko, apostoliko eta erromatar honek aitortu behar dut *Ama Birjina* esamoldea bera nerabezaroen *contraditio in terminis* iruditzen zitzaidala, absurdoa. Geroago ulertu nuen, dogmak dogma, horrelako baieztapenek esanahi literarioa izan dezaketela, eta historiaren eta kulturen garai batzuen baitan gorespentzat eman behar direla, ez dela beharrezkoa *sensu stricto* hartzea.

Haurdunaldi subrogatuaren kontua sortu zen arte. Eta egia balitz? Antzinako xamanek edo profetek ere izango al zuten amatasun birjinalaren sekretua? Hainbeste memelokeria agertzen dituzten modako nobela historiko-mitologikoei badute hemen pagotxa.

Aste Santu giroan, komediantek katalan batzuk *Virgen del Rocío* alproja samar atera zuten esketx batean. Horixe festa

antolatu zena! Andaluziarrei iraina egitea zela eta ohiko erretolika. Nik esketxa ikusi eta barre egin nuen, andaluziarrei inongo burla kontzientziarik gabe. Arantzazu, Idoia, Estibaliz edo Arantzetakoarekin egin izan balute ere, ez zidakeen minik emango. Komiko ibili nintzen urteetan, ordea, ziur aski ez nukeen horrelakorik antzeztuko. Xehatuko dut.

Umoregintzan funtsezko hastapenak hauek dira: 1. Edonor, edozer eta edozein egoera erabil daiteke barrea sortzeko. Mugarik gabeko umore sormena. 2. Barrea eta umorea botikak bezain baliotsuak direnez osasun fisiko eta mentalerako, Hipokratesen printzipioa ere atxiki behar zaie: *primum non nocere* (aurrenekoa, kalterik ez eragitea). 3. Komunikazioaren arauak sailhetsezinak dira. Komikoak asmatzen ez badu, bere profesionaltasunaren akatsa da eta kexu egiteko eskubiderik ez du. 4. Komediantek bere burua definitu egiten du aurrekoetan egiten dituen aukeretan. 5. Eta jasotzaileak berea, duen erantzunarekin.

Oraingo honetan asaldatutako gehienak politikariak izan dira, baita Eliza maite ez dutenak ere, eskuin muturretik ezkereraren ertzeraino... eta hauteskunde garaian. Kokoteraino naukate. Lasaitzeko, zalantzan nago zer kantatu barrez begiratzen duen Ama Birjinari, *Agur Jesusen ama* edo *Salve Rociera*. Agian latinez: *Salve Regina*. Hirurak ezin ederragoak. ●

03:28



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Gauetz gobernatzen duten presidentek badira. Trump, adibidez; ordu gutxitan baino ez zuen lo egiten, eta gero, Twitterren mezuak igortzera lehiatzen zen mensa bezala. Macron ere halakoxea da: lau oren baizik ez ditu lotan gastatzen eta gainerrakoan lanean omen dabil, edo gutariko askoren plantan, insomnio gauetan, mexikar telesail odoltsuak irensten. Ez dira baitezpada etsenplurik hoberenak.

Apirilaren 14an, arrastiriz, eman zuen bere erabakia Kontseilu Konstituzionalak, botere politiko-ekonomikoen aldekoa bistan dena, hotza, psiko-malgorra. Macronek biharamunean bertan,

goizeko 03:28ean, ilunaz balia, promulgatu zuen Egunkari Ofizialean, jada forzepsekin iraganaraztea lortu zuten erretretan erreformaren testua. Eta gu, hiritar soil, loti eta alferrok, larunbat azkorrian, irratia piztu eta algara zaintsutan, Jupiterrek legea "katiminian" ofizialdu zuela jakitean. Elisioko perbertso-narzizikoa ebasle baten antzera aritu zen, bere buruaz net harro ez bailitzan.

Neoliberalismoak, naski, loa ere baliogabetu nahi digu, errentagarria ez delako. Lo egitea, alta, ona da norberaren baitan enpatia eta esku-zabaltasuna sustraitzen laguntzeko. ●